

TIBET

Munduan dan lurralderik bereizienetariko bat dogu-Txina'ren albo baten dagoan Tibet lurraldea.

Goiko leun-une edo meseta bat da, 4 500 m. itxaso baiño gorago.

Lurralde otza da, lekaroa, baiña zoragarria, mendi-arte baten. Egoaldean Imalaia eta emen Eberest mendirik aundiena, 9 000 m'koa.

Berez askatasuna zor jakon aberri bat izan arren, txinatarren menpean dago eta egoera oso larrian. Tibet'en gogor jokatzen dabe komunistak!

Lhasa da uriburua eta lenago Dalai-Lama zan agintaria, baiña gaur erbesteratuta dago.

649n. urtean sortu eben idazkerea.

Lenengo erregea "Zuzen.Indartsu-Sakon" izan zan eta buda-bidea sartu eban Tibet'era.

1239n. urtean lamaismo aberri orretako erlejiño biurtu zan.

Dalai Lama'k beti izan dira izterbegizikusiak alboetako agintarien aldetik eta makurtzen izan ez zira-nak, kendu egiten ebezan.


Tibet'tarrak txikiak eta indartsuak dira, narrua kobre-kolorekoa dabe, begiak gaztaiña-kolorekoak eta ule baltza.

Zoriontsu bizi dira, naizta garbitasuna urria izan euren artean. Guztiz erlejiño-zaleak dira.

5 000 monastegi daukez eta eleizbirak eta jaiak ugari egiten dira euren artean.

Janariak garagarra, aragia, gaztaia, tea egunean lau katillukada.

Yak idia bearrezkoa dabe. Orre-xek emoten dautse aragia jateko, uleak jantziak egiteko, narrua batelgintzarako, zaldi-bastak, txabolak



Yeti edo "Elurretako gizon iguingarria": margolari baten asmakizunak.

ortik ateraten dabez eta adarrak onak jakez turutak egiteko.

Iru milloi lagun dira guztiz eta 1/5 abadeak dira.

Monjeak eleizkizunak ondo gertatzen dabez, eta gobernuaren langileak izaten dira, sendagileak be bai, luma ederdun idazleak, margolariak, soiñulariak, eskaleak...

Monje batzuk bakarti biurtzen dira, euren gorputza menperatzeko.

Leiñargiak edo nobleak gudetan garaille urten dabenak, edo Dalai Lama bat azi dabenak edo erregeagandik jatorria daukenak edo orretarako agiria erosi dabenak izaten dira.

Aundikien etxeak arri landuzkoak izaten dira, terrazadunak, eta iñoz bost bizileku be eukiten dabez.

Ipar-aldean artzain ibiltariak dagoz. Ez dauke beste tibettarren antzik eta lanik ez daukeneak, bide-lapur biurtzen dira.

Ego-aldean nekazariak bizi dira eta garagarra, oloa, garia eta olakoak artzen dabez, baiña maisterrak edo errentariak dira.

Gaisoak osatzeko, landaretara jotzen dabe eta sorginkerira be bai. Oraintxe asi dira osagaiak saltzen lurralde aretan.

Erbesteko gizonakaz artu-emon gitxi nai izaten dabe.

Euren jaiak ainbeste diralako, joko-mota asko dauke jai orreitarako, kukaiña be bai.

Bide-ertzak lorez beterik ikusten dira, ikuspegiak eder biurtzeko.

Lentxuago "Edurretako gizon iguingarria" (el abominable hombre de las nieves) bizi zala an esaten zan eta "Yeti" izena emoten eutsoen, baiña iñoz ez dau iñoz aurkitu.

OLAZAR'tar Martin'ek